

Psilocybe Enea

Musikaren plazer etxea

Iragan urriaren 4an Hondarribian proiektu berria jarri zen abian: Psilocybe Enea. Musikaren prozesu guztiak bere baitan biltzen dituen etxea da, bertan entseatu, grabatu eta zuzenekoak eskaintzeko aukera baitago. Musikazaleok, sartu barrura!

Testua eta argazkiak:

LANDER MUÑAGORRI

“P” ARROSA BATEK EGITEN DIO harrera bisitariari. Jende askoren nahasmena sortu du letrak. “Iparraldeko jendea etorri izan da hona, galdetuz ea diskoteka non dagoen, baina ni ziur nago batek baino gehiagok

putetxe batekin nahastu duela etxe hau” dio Anjel Etxebestek; besteak beste Lif eta Zura taldeetako partaideak da, eta orain bakarlari bidea hartu du. Egia esateko, edonor nahasteko proposa da Psilocybe



Enea; kanpotik beltza, goitik behera, eta aipatutako letra arrosa, Psilocybe elkartearen kolore bereizgarria. Baina behin barrura sartuz gero, putetxea beste zer-bait bilakatzen da; musikaren tenplu bat, hala esaterik bada. Putetxearen gisan, bisitaria hona plazer bila etorriko da, musikak sortuko dion plazer horren bila.

Psilocybe ez baita edonolako elkarte, ez. Hondarribiako musika taldeak elkartzen dituen elkarte da: 1992an entseatzeko lokalen beharrak elkartu zituen, eta hamasei urte beranduago, hori baino askoz gehiago lortu dute. Egun daukaten eraikinaren antzeko ezer ez dago Euskal Herrian; bertan daukate edozein musika taldek amestu dezakeen guztia. Entseatzeko lokalak, kontzertu aretoa, grabazio estudioa eta irratia. Dena Udalak ordainduta, eta kudeaketa musikarien esku. Askok galdetuko duzue ea nola demontre lortu duten hau guztia...

Udalari ateratako etekina

1992an hainbat musika talde elkartu ziren, Udalari euren aldarrikapenak helarazteko. 1993ko abenduan, Udalaren Saindua etxean kontzertuak eskaintzen hasi ziren, eta bi urte geroago lortu zituzten eskatzen ari ziren entseatzeko lokalak; baina 1996an Saindua itxi, eta Hondarribian kontzertuak eskaintzeko tokirik gabe geratu ziren. Ordutik 2003ra arte, diru laguntzarik gabe ibili ziren. “Hartan kultur zinegotzia zena, oraingo alkate Aitor Kerejeta zen”. Urri hasieran Psilocybe Enearen inaugurazio ekitaldiak izan zirenean “sormena eta gazteria sustatu beharra” azpimarratu zuela oroitzen du Anjel Etxebestek. Elkarte



Anjel Etxebeste Psilocybe elkarteko kidea. Atzean, arrosa koloreko horma. Ez dago dudarik, Psilocybe Enean gaude.

sortu zenetik, Udalarekin eta erakundeekin harremanetan esperientzia handia lortu dute, eta horren fruitua da egun lortu duten erakina.

“2001ean, Udalak esan zigun entsegu lokalak utzi behar genituela, etxe honetan bertan makroproiektu bat egiteko asmoa baitzeukaten”; proiektu hori kultur etxe handi bat eraikitzea zen, Hondarribiako kultur elkarte guztiak bilduko zituen: “baina azkenean eskuetatik joan zitzairen, eta ez zen egin”. Psilocybeko gazteek euren txanda zela ikusi zuten; “aspalditik geneuzkan ideiekin joan ginen eurengana, lokalen beste alde aprobeztatzeko aldera, urte luzetan hutsik baitzeuden; era honetan, herrian zegoen gabezia kulturala estaltzeko balio izan zien gure proiektuak” azaldu digu Etxebestek. Hala ere, hutsune hori beteko ez dutela ere jakin badaki, “herri batek ez baititu kontzertuak baka-

Txapela Buruan
to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia
telf. 943428299 www.txapelaburuan.com

rrik behar”, gazteen alor bat bakarrik hartzen baitu bere baitan Psilocybe Eneako egitasmo honek.

Era honetako eraikinarekin, Hondarribiako panorama musikalak bultzadaxoa jasoko du, lokal hauetan entseatzen ari diren taldeak motibatu egiten direlako kontzertuak eskaintzeko leku bat daukatela jakitean. Hau horrela izaki, esker hitzak ere baditu Etxebestek Udalarentzat; ez da gutxiagoko, Hondarribiako Udalak orotara 620.000 euroko inbertsioa egin baitu, Psilocybe Enea errealitate bilakatu dadin. “Badakigu zer nolako zortea daukagun, baina gure elkarteak Udalarekin badaramatza 15-16 urte elkarlanean, eta beti erakutsi dugu seriotasuna eta jarraipena; horrek ziur aski eragina izango zuen Udala gutaz fidatu baita azken finean”.

Bidearen erdia

Baina oraindik zailena egiteke dago; halako azpiegitura lortzea zaila izan bazen, orain horri guztiari behar bezalako erabilpena ematea ez da lan xamurra izango. Horretarako, Psilocybe-ko partaideak lan taldetan banatu dira, egin beharrekoak behar bezala egiteko; “irradi lan taldea irratsaioa egiteaz arduratzen da, programaziokoak kontzertuen kartela osatzeaz, diseinukoak webgune eta kartelak egiteaz, mantenukoak apurtzen den oro konpontzeaz, soinu teknikariak grabazioak egin eta kontzertuetako soinua orekatzeaz, eta administraziokoak idazkari lanak egiten dituzte”. Oraingoz partaide gehienak musikariak diren arren, bestelako jendeari ere ireki nahi dizkiote etxeko ateak; “erakusketak, bideo emanaldiak eta askoz gehiagorako baliabideak baditugu, hortaz gogoia duen edonori irekita gaude, musikaren inguruan

Eraikin honen antzeko ezer ez dago Euskal Herrian. Edozein musika taldek amestu dezakeen guztia dago bertan: entseatzeko lokalak, kontzertu aretoa, grabazio estudioa eta irrateria. Udalak ordaindua dena, baina musikariak kudeatua

izan edo ez”. Irratia ere hor dagoela gogorazi du Etxebestek nahi duen ororentzat. Hasieran Antxeta irratiarekin (89.7 eta 90.5 Irun, Hendaia, Behobia eta Hondarribian) hasi ziren lanean, eurentzako saio bat eginez, eta orain beraien irratsaioa izango dute Psilocybekoek. “Antxetakoek, elkarlanean, eskaini digute gure programazioa euren uhinetatik ematea; horretaz gain, Internetetik ere emititu ahal izango dugu”. Azaroaren 1ean hasi ziren www.psilocybe-nea.com webgunean musika emititzen.

Baina musikariak ez diren pertsonak “putetxe” honetara hurbil daitezzen saiatzen badira ere, aurkakoa gertatzen da musika taldeekin. Musikaren plazeretxean sartzeko itxaronzerrenda daukate musikariak; “noizbehinka jotzen ari ez diren taldeen errepasoa egiten dugu, eta euren ordua libre uztera gonbidatzen ditugu; jende berria sartzen saiatzen gara, betiere daukagun muga fisikoa onartuta”. Hiru entsegu lokal dauzkate, eta hamabost musika talderentzako lekua. Baina burdel honetan sartzeko bete beharreko baldintza batzuk badaude “hasieratik ikusi baikenuen sekulako eskaria zegoela lokaletan entseatzeko”. Horregatik taldea Hondarribiako izan beharko da, kideen %50a gutxienez; horretaz gain, oinarritzko materiala edukitzea eskatzen dute.

Psilocybe ireki denetik bi hilabete eskas igaro dira, eta dagoeneko kontzertu interesgarriak eskaini eta programatu dituzte. Hurrengo asteetarako kartelak ezagutu nahi izanez gero, www.psilocybe-nea.com webgunean egin ahal izango da. Baina etxe hau ez da kontzertuetarako soilik ireki, sartu eta murgildu musikaren plazeran. ■



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea